

II - ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN TOKI ADMINISTRAZIOA

AMURRIOKO UDALA

Jendaurrean jartzea ordenantza, kontratu orduak murriztu zaizkien eta/edo lana galdu duten etxeko langileei aparteko osagarria emateko dirulaguntzen udal programa arautzen duena

Udalbatzak, 2020ko ekainaren 25ean egindako bilkuran, behin-behineko onespena eman zion kontratu orduak murriztu zaizkien eta/edo lana galdu duten etxeko langileei aparteko osagarria emateko dirulaguntzen udal programa arautzen duen ordenantzari (esp.: 2020/99/S999).

Erabaki hori eta horren aurreko guztiak udal idazkaritzan egongo dira ikusgai hogeita hamar egun baliodunez, iragarki hau ALHAOn argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera. Epe horretan interesdunek espedientea aztertu eta egoki deritzeten erreklamazioak aurkeztu ahal izango dituzte.

Erreklamaziorik aurkezten ez bada, erabaki hori behin betiko bihurtuko da.

Amurrio, 2020ko ekainaren 26a

Alkatea

MIREN JOSUNE IRABIEN MARIGORTA